

2

**BAITU,
BAIKARA,
BAINAIZ (*)**

Bait partikula (*beit* zubereraz, testu zaharrenetan izan ezik) aditz laguntzailearen edo trinkoaren aurre-aurrean kokatzen da. Iparraldeko tradizioan eta Hegoaldeko Nafarroako testuetan, zenbait salbuespen baztergarri alde batera utzirik, aditzari atxikirik agertzen da beti, lehenengo testuetatik gaurdaino.

Sartaldean, *bait* gutxiago erabiltzen da, baina aski ohikoa da XVIII. mendean gero literatura gipuzkeran eta mende honetako zenbait idazle bizkaitarren; *bai* aldaera batez ere mende honen lehen erdian erabili zen, mendebalean, jakina.

Mendebaleko testu zaharretan *bait* atxikirik agertzen da Mendiburu eta Ubillosengan, baina marrazkoz loturik Iturriagarengan eta berezirik Iztuetarengan. Dena dela, *bait* atxikirik agertzen duten agerraldiak nagusi dira, alde handiz XIX. mendearen bigarren erdialdean. Mende honetan ere 1900-1970 epean *bait* atxikia da sartaldean gehien erabiltzen dena: *Orotariko Euskal Hiztegia*-ko datuetan, 1900-1950 epean, *bait* atxikiaren 653 agerraldi daude, 10 *bait* bereziarenak eta 34 *bait* marrazkodunarenak, eta 1950az geroko testuetan, 1161 *bait* atxikiarenak, 390 *bait* marrazkodunarenak eta 93 *bait* bereziarenak. Ikusten denez, *bait* bereiz idaztea guztiz berria da (azken 25 urteotako kontua, batez ere) eta Hegoaldeari soilik dagokiona. Gainera, idazkera berri horrek ez du usadio zaharra baztertu Hegoaldean, *bait* atxikia ere ikusten baita, batez ere ereduak idazlearen artean.

Bestalde, *bait*-en erabil moldea ezin da parekatu ezezk esaldietako ez partikularekin: ez bereiz XVIII. mendearen erdialdeaz gero aurkitzen da Iparraldeko nahiz Hegoaldeko testuetan, eta erabat ohikoa da XIX. mendearen bukaerarako.

Bait atxikirik idazteari hainbatek ikusten dion eragozpenik larriena, aditzari lotzean gertatzen diren letra ezabatzeak edo aldaketak dira. Baina lotura legeok aski errazak dira:

<i>baitu</i>	<i>baikara</i>
<i>bainaiz</i>	<i>baihaiz</i>
<i>bailuke</i>	<i>baitzuen</i>
<i>baitabiltza</i>	<i>baitator</i>
<i>baitoaz</i>	<i>baikentozke</i>
<i>baikintuen</i>	<i>bainator</i>
<i>bainenbilen</i>	<i>baihaiz</i>
<i>baihintzen</i>	<i>baitetorke</i>
<i>baillizateke</i>	e.a.

(*) *Oharra*: Arau honek lehenetik harturiko erabakia zehazten/aldatzen du. Ikus *Euskera* XVII, 1972, 168-173. orr.

Literatura tradizioko usadioa ez da ezin aldatuzko legea, baina tradizioko batasuna hausteko arrazoiek pisuzkoak izan behar dute, kalteak onurak baino handiagoak izan baitaitezke bestela. Hortaz, Euskaltzaindiak hau erabakitzen du:

***Bait* partikula, kasu guztietan, aditzari atxikia idatz dadila: *bain*aiz, *baikara*, *baitoaz*, e.a., eta ez **bai(t) naiz*, **bai(t) gara*, **bai(t) doaz*, e.a.**

Bibliografia: *Orotariko Euskal Hiztegia*, s.v. *bait*.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)